

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3474

AGINDUA, 2012ko ekainaren 27koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, sinadura elektronikoen eta egiaztatzeen gaineko politika onartzekoa.

Administrazio Elektronikoi buruzkoa otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 19. artikuluan ezartzen duenez, Administrazio Elektronikoa eskumena duen saileko pertsona titularren aginduaren bidez onartuko da sinadura elektronikoen eta egiaztatzeen gaineko politika, eta onartu izanaren pasarte bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta testu osoa, berriz, egoitza elektronikoa. Halaber, 19. artikuluan xedatzen da politika horrek sinadura elektronikoa sortu, baliozkotu eta gordetzeko prozesuak zehaztuko dituela, baita sinadura elektronikoko sistemei, ziurtagiriei, denbora zigilatzeeko sistemei, eta sinaduren euskarriko beste elementuei eska dakizkiekeen ezaugarriak eta eskakizunak ere.

Administrazioaren Sinadura Elektronikoko eta ziurtagirien Politikaren Elkarreragingarritasunerako Arau Teknikoak, Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoen eremuan arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuaren garapenean emanak, ezartzen du Administrazio Publikoek ziurtagirietan oinarritutako sinadura elektronikoen politikak garatzeko edo ezartzeko irizpide-multzoa. Horretarako, ziurtagirietan oinarritutako sinadura elektronikoen politikaren edukia definitzen du, arau komunak ezaugarriak zehaztuz, hala nola formatuak, algoritmoen erabilera, agiri elektronikotarako sinadura sortzea eta baliozkotzea, baita ziurtagiri elektronikoen, denbora-zigiluen eta sinadura urtetsuen gaineko konfiantza-arauak ere.

Aurreko arauak aplikatuz, agindu honen bidez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren sinadura elektronikoen eta egiaztatzeen gaineko politika onartzea.

Bigarrena.– Sinadura elektronikoen eta egiaztatzeen gaineko politikaren testu osoa argitaratzea <https://euskadi.net/> egoitza elektronikoa.

AZKEN XEDAPENA

Sinadura elektronikoen eta egiaztatzeen gaineko politika agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 27a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.